BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA
OGASUN ETA FINANTZA SAILA

2289

346/2013 DEKRETUA, maiatzaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Bilbao Exhibition Centre, S.A. sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena ematen diona.

Euskal Autonomia Erkidegoaren parte-hartzea Bilbao Exhibition Centre, S.A. sozietatea burutzera doan kapital-gehikuntzan 2002ko ekainaren 6an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Ansion (Barakaldo) Erakustazoka berria garatzeko eta EITBren egoitza Bilbon kokatzeko izenpetutako lankidetza-hitzarmenean ezartzen da. Ondoren, lankidetza-hitzarmen hau 2002ko urriaren 30ean Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak eta Bilbao Exhibition Centre, S.A. sozietateak izenpetutako beste hitzarmen batek garatu du.

Aipatu hitzarmen horien ondorioz, Ansioko (Barakaldo) Erakustazoka eraikitzeko finantzaketa burutzeko Bilbao Exhibition Centre, S.A.k erabakitako kapital-gehikuntzetan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak 12.020.242 euroko urteko ekarpena egiteko konpromisoa hartzen du akzio-harpidetzaren bidez.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak honako hau ezartzen du 110.1 artikuluan: enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ematen den egunetik aurrera izango du eragina.

Kapitala ordezkatzen duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuak nahitaez adieraziko ditu, non eta doako eskuratzea ez den, sozietatearen xedea eta EAEk, zuzenean nahiz zeharka, zenbateko partaidetza-portzentajea izango duen sozietatean.

Bilbao Exhibition Centre, S.A. sozietatearen helburu soziala da «azoka-jarduerara zuzenean edo zeharka bideratutako ondasun higiezinak sustatu, eraiki, zaindu eta ustiatzea, betiere hauetariko eraren baten: alokairua, salmenta edo, berak edo hirugarrenek legez onartutako ezein formularen bidezko lagapena».

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren eta Ogasun eta Finantzetako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 7an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematea Bilbao Exhibition Centre S.A. sozietateko Akziodunen Biltzar Nagusiak 2013ko martxoaren 21ean erabakitako kapital-gehikuntzaren hamabi milioi eta hogei mila, berrehun eta berrogeita bat (12.020.241) euroko harpidetza egiteko, gehienez. Halaber, baimena ematen zaio aipatu ordainketa harpidetza egitean egiteko, bai eta sozietatearen estatutuak aldatzeko ere. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Bilbao Exhibition Centre, S.A. sozietatean izango duen partaidetza zuzena % 47,75ekoa izango da.

2. artikulua.– Ondare eta Kontratazioko zuzendariari ahalmena ematea aurreko artikuluetan xedatutakoa burutzeko beharrezkoak diren jarduerak gauzatzeko eta agiriak izenpetzeko.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko maiatzaren 7an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
RICARDO GAZAGAECHEVARRIA BASTIDA.